

LASARTE-ORIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2024ko urria

“2. HIRIGINTZA ARAUAK” dokumentua.

“2.3. KATALOGOA”

AURKIBIDEA

I.- Dokumentu honen xedea	1
II.- Ondasun katalogatuen zerrenda	2

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Dokumentu honen helburua da Lasarte-Oriako udal-mugaratean dauden eta beren interes artistiko, kultural, historiko, zientifiko, arkeologiko edo beste mota batekoagatik, dagokien babes-erregimena formulatuz, balizko esku-hartze suntsitzaile edo degradatzaileen aurka babestu eta zaindu behar diren ondasun eta elementu eraikien zerrenda identifikatzea. Bere egitekoari erreparatuta eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko Legeko 60., 76. eta beste hainbat artikulutan aurreikusitakoaren arabera, Katalogo hau, barne hartzen duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren tresna osagarria da.

Udalerriko kultura-ondarearen Katalogoa jarraitutako prozesuaren emaitza da, jarraipenean beste elementuren bat gehitzeko edo bakarren bat kentzeko aukera baloratzearen kalterik gabe.

HAPOk Hirigintza Arau Orokorretako 185. artikulutik 190. artikulura ondasun katalogatuen tratamendurako eta babeserako aplikatu beharreko zehaztapenak arautzen dira. Aldi berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean eta horren aldaketan (azaroaren 30eko 14/2023 Legea) xedatutakoa bete beharko da. Ondasun eta elementu horiek guztiak aipaturiko araudian ezarritako babes-araubideari eta, hala badagokio, kultura-ondarearen arloan indarrean dauden eta horiekin bat datozen xedapenetan ezarritako babes-araubideari lotuta geratuko dira.

Bestalde, proposamena modu grafikoan dago jasota VI.1 planoan.

Lasarte-Oriako HAPOk Katalogoan elementu katalogatuen babes-araubideen honako modalitate hauek identifikatu dira:

- Babes Berezia.
Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean xedatutakoaren arabera, Katalogoko elementuei aplikatuko zaie, baldin eta Kultura Ondasun Kalifikatutzat edo Kultura Ondasun Inbentariatutzat jotzen diren edo xede horrekin sustatutako espedientea duten eraikinak badira.
- Tarteko Babesa.
Gaur egun inbentariatuta dauden eraikin eta elementu guztiei aplikatuko zaie.
- Oinarrizko Babesa.
Katalogo honetan kategoria honetan sartzen diren balio handieneko elementuei aplikatuko zaie. Oraingoz ez da bakar bat ere identifikatu.
- Tokiko Babesa.
Udal-ikuspegitik Katalogoan sartutako eraikin eta elementuei aplikatuko zaie. Babes hori partziala izango da eraginpeko eraikinaren alderdi jakin batzuei bakarrik eragiten dien kasuetan.

II.- ONDASUN KATALOGATUEN ZERRENDA.

Jarraian, balio edo ezaugarri bereziak dituztelako katalogo honetan sartu diren eta Plan Orokor honetan eta aplikazio orokorreko lege-xedapenetan ezarritako araubidearen arabera babestu, zaindu eta hobetu behar diren eraikin, espazio eta bestelako elementuen zerrenda azalduko da. Eraikin eta elementu horien kokapen grafikoa Plan Orokor honetako planoak dokumentuko "VI.1. Katalogoa" planoan jaso da.

Hona hemen zerrenda:

A) Babes Berezia duten elementuak:

- Elementu kalifikatuak:

* **Lasarteko Brigiden komentua**

Kokapena: Kale Nagusia 30

Katastro-erref.: 12.09.040

Kalifikazioa: Monumentu kategoria duen kultura-ondasuna

1964ko urtarrilaren 17ko Agindua, 1964ko otsailaren 29ko 52. BOEn argitaratua.

Oharra: Zenbaki horren barruan sartzen dira hilerrria eta lorategia, baratzea barne.

Halaber, otsailaren 28ko 51/2006 Dekretuan eta urriaren 16ko 177/2007 Dekretuan xedatutakoaren mende dago.

* **Done Jakue Bidea.**

Kultura-ondasuna, monumentu-multzo kategoriarekin

Urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan (Kultura-ondasun kalifikatua, Monumentu Multzo kategoriarekin) eta 66/2022 Dekretuan berariaz xedatutakoaren arabera jokatuko da.

San Pedro eliza eta Brigiden komentua aipatu dekretuan sartuta daude.

- Ustezko arkeologia-eremuak:

* Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak 1997ko irailaren 11n emandako ebazpenaren eraginpeko eremuak eta elementuak.

Ondoren zerrendatuko diren higiezinak eta elementuak, bestalde, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legean eta Ustezko Arkeologia Eremu izendatzeko urriaren 8ko 234/1996 Dekretuan xedatutako araubideari lotuta geratuko dira.

Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeko 65. Artikuluan xedatutakoa aplikatuko da bereziki.

- Eraikinaren hormaz barruko eremuari buruz:

Lasarteko Birgitarren komentua

Kokapena: Kale Nagusia 30
Katastro-erref.: 12.09.040
Kalifikazioa: Ustezko zona arkeologikoa - A Gakoa

*** San Pedro parroki-eliza**

Kokapena: Kale Nagusia 23
Katastro-erref.: 12.09.042
Kalifikazioa: Ustezko zona arkeologikoa - A Gakoa

- Eraikinaren hormez barruko eremua gehi 15 metro inguruan, kanpoko ertzetatik neurtuta:

*** Lasartetarren multzoa**

Kokapena: Planoan marraztutako eremua
Katastro-erref.: -
Kalifikazioa: Ustezko zona arkeologikoa - E Gakoa

B) Tarteko Babesa duten elementuak:

*** San Pedro parroki-eliza**

Kokapena: Kale Nagusia 23
Katastro-erref.: 12.09.042

*** Plazaolako zubibideak**

Kokapena: Plazaola landa-parkea

C) Tokiko Babesa duten elementuak:

*** Lasarteko Brigiden komentuko arkupea**

Kokapena: Kale Nagusia 30- Zati bat
Katastro-erref.: 12.09.040- Zati bat

*** Kaxkarroko tunela**

Kokapena: Zatarain eremua

*** Brunet fabrikako azpiegitura hidraulikoa**

Kokapena: Lurzoru urbanizaezina
Oriako behatokiaren hegoaldean

*** Coca Cola eraikina Errekalden (Norbega, S.A.)**

Kokapena: Errekalde hiribidea 55
Katastro-erref.: 157571 M

*** Hiriko etxea**

Kokapena: Kale Nagusia 16, 18 - Geltoki Kalea 1, 3
Katastro-erref.: 12.09.028- 12.09.029- 12.09.030- 12.09.031

*** Hiriko etxea**

Kokapena: Kale Nagusia 20
Katastro-erref.: 12.09.041

*** Lasarte-Oriako udaletxea**

Kokapena: Kale Nagusia 22
Katastro-erref.: 12.09.043

*** Hiriko etxea**

Kokapena: Kale Nagusia 24
Katastro-erref.: 12.09.044

*** Hiriko etxea**

Kokapena: Kale Nagusia 26
Katastro-erref.: 12.09.045

*** Hiriko etxea**

Kokapena: Kale Nagusia 28
Katastro-erref.: 12.09.046

*** Andre Joakina Enea. Ekipamendua**

Kokapena: Kalbario Bidea 2
Katastro-erref.: 13.09.053

*** Elkezabal Aundi baserria**

Kokapena: Urnieta Bidea 12
Katastro-erref.: 02.DI.013

*** Larrekoetxe Baserria**

Kokapena: Larrekoetxe Bidea 10
Katastro-erref.: 01.DI.018

*** Karmengo Andre Mariaren eliza Brunet y Cia Ehun Fabrikaren Koloniaren eliza**

Kokapena: Oria Etorbidea 5
Katastro-erref.: 26.27.007

Kultura-ondarean esku hartzeko eta hura babesteko irizpideek arlo horretan aplikatzekoa den legerian xedatutakoa errespetatuko dute. Gaur egun, legeria hori bat dator Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearekin eta hura aldatzen duen azaroaren 30eko 14/2023 Legearekin.

Aipaturiko elementuak Katalogoan jaso dira, dagokion Plan Berezia idatzita eta elementu bakoitzaren fitxa indibidualizatuak eginda, kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak zehaztu ahal izatearen kalterik gabe.

Zehaztu da udalerrian oraingoz ez dela babes ertaineko elementurik identifikatu, babes-talde edo tipologia hori identifikatzeari kalterik egin gabe.


Donostian, 2024ko urrian



Sin: Santiago Peñalba



Manu Arruabarrena



Mikel Iriondo



Sin.: Iñigo Peñalba



Carmen Seguro